



IOAN-ETORRI BAT ERROMARA

Domingo Agirre

Iturria: *Ioan-etorri bat Erromara*, Agirre-ko Domingo.
Euskalzale, 1899, XXII-XXXV. zenbakiak.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AgirreDErromara.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

IOAN-ETORRI BAT ERROMARA

BIAJARI BATEN ZIABETXOAK



BERBAURREA

ON ANTONIO ARZAK ETA ON KARMELO ETXEGARAIKOARI

Bada zuek zaree, neure adiskide maiteak, bata, ez neukan gogamena nire buruan ipiñi zeunstana, eta bestea *Euskal-Erria*-n ziabezte oneek argitarateko lekindez esaten deustazuna, errazoizko gauzea da zuen izena errenklara motel iakituri bagako oneen aurretik ipintea; eta baita bere zuen gaiñean iaustea egintza onegaitik etorri leikezan erizmate edo esan mesanak, iñok irakurten badau, zuekaz gaiñera.

Zegaitik ezagututen dot: ezpaditut bere zuentzat bakarrik euskeraz-ko ziabezte oneek eskribiduten, beste euskaldunik ezta izutuko beartxu au irakurten begiak nekatuta, eta geratuko da *Euskal-Erria*-ren orri tartean, gatz da bizitasun bagako lan kaskar danak oi diran gisara. Batzuk esango dabe luzea dala; besteak, laburregia; askok begiratu bere naiko ez deuta Bizkai-ko izkeran egiña dagolako; onek Erroma-ko barri ondo jakiñagaitik eta biajari argidotar askoren kondaira ederrak irakurri dituelako; arek nire izkera latz, lotu ta illuna izanik, askaera eta liraiñtasun bagea billatzen dabelako.

Au *Euskal-Erria* euren eskuetan artzen dabeenen artean gertaiko da. Eta, gainera, ondo dakizue, adiskideak, zeinbat eta zeinbat aurkituten direan, Larramendi, Astarloa eta Mogel-en sorlekuan jaioak izanagaitik, euskerazko gauzen barririk бага bizi diranak, baserritarrentzako baster-tua daukeela euren amaren izkuntz maitagarria!

Zuek, bada, izango zaree, nire irakurlariak, eta geien geienez, ete da euskaldun zar iakitun andia ezta irakurtzaleren bat, or edo emen, txokoren baten? Nai izan nai-ez, onezkero neure berbea bete bear dot, eta aste-ra noa esaten zelan egin dodan jira-bira mundu guztiko Katoliko-en buru ta nagositzat ezagututen dogun Erri kondairalera.

Bizi bazara, nire irakurzale zartxua, jarri zaite apal-ondoko sutondo-an, biztu egizu pipea eta zeure begiak lauzotuta badaukazuz, lobatxu batek irakurri daizula, gogortxu, sukaldea manietan dabilzanak bere entzun daien, bada txoko guztietatik iarraitu zeinke nire ioan-etorri oni zeuen irudipen [imaginación] azkar eta zoliakaz. Eta, zuek, izentauriko adiskideak, gertau zaiteze ordu txar bat eukitera, zuen eskaerearen miñ-ondorerako.

BITORIA-N

Aurtengo Burilla-ren 10ean, gabaren lenengo orduetan, batzartu giñan Bitoria-ko San Bizente-ren elizako *sakristiatsuan*, eleiza onetako abade nagosi On Justo Lopez Arroyabe-koa buru da zuzentzaille genduala, berrogeta amarretik irurogeira lagun, gitxi gorabera; euskaldunak guztiok, gazteak geienak, abadeak asko, zarrak norbaitzuk, berba egiteko nundik eta zelan urtengo genduan biaramonean alkartuak Erromaruntz, eta iakiteko ze ordutan eukiko genduan gure erromeriaren asierako eliz-iaia.

Danen arpegietan poztasun da atsegiñ barrukoaren keriz gozoa agiri zan: bata bestea bein bere ikusi ezeben ienteak amodiozko irribarre leu-nagaz begiratuten eutseen alkarri; guztiok giñan adiskideak gogamen bardiñak batu genduzalako leku atan; danok geunkan asmo eder bat, fede santu bat geunkan erara; Bizkaian iaunak, gipuzkoatarrak eta Araba-koak nai genduan eldu San Luis Gonzaga-ren obira, bere eriotzako irugarren eunkida arrengotzat arturik, eta an erregutu Eleizea-ren premiñagaitik; baita bere gura genduan Leon XIII-garrenaren aurrean auzpaztuta, esan, bere biotz estutuaren alaitasunerako, giñala Euskaldunak, katoliko Aita Santua biotzez maite genduanak.

Etorri zan urrengo eguna. Batu giñan barriro San Bizente-n. Eleiz polit onetako arroiña guztiak ikusten ziran orriz, eskutuz eta banderaz apainduak, altara nagosia argiz betea, erdian gertauta egozan iarrilekuean Bitoria-ko San Luis-en Batzarreko gazteak eta iru Probentzietako erro-meri zaleak, Meza santua entzun zan onerazpenez edo deboziño, eta *koruan* kanta eztsuak aidatuten zituen bitartean bioliñ eta beste soiñu maitagarri eta leunen laguntzeagaz, indartu ziran sekular danak euren bio-tzean arturik amodio eta borondate utsa dan Iaun eta Iaungoikoa. [Abadeak esan eben *Mezea* bakotzak gura eban tokian]

Komunio donetia amaitu da bereala On Justo Lopez len izentauta-ko abade iaunak egin euskun sentimentuz beterikako berbaldi labur bat. Gomutau eban, lenengo, zer pozkida izango zan guretzat, berak esango eban berbalditxuaren lekuan Apezpiku edo *Obispo* iaunak ekin izan baleusku berba, eta emon baleusku artzain eta gurasoaren bedeinkaziñoia, gura eban legez; eta gero, arimen zorientasun eta Ebanjeliuaren garai-tzeagaitik sutua, gomendau euskun: «erakusteko gure fedea agirian esku-tuan legez, edozeiñ ordutan, toki guztietan, fedearen arerioak aiñ agiri ta



lotsabaga Eleizea-ren kontra lan egiten eben ezker; baiña ez gerra zara-tan, gure arerioak, baldin, apes egiten eben legez; ezpada eze bake soiñuan; bada, zirautsan, danoen oraziño biziaren murmurrada biguna-kaz urratu leikez, menturaz, Aita Santuaren kateak, denpora baten tron-peta-otsagaz bakarrik Ieriko-ko murrak iausi ziran antzera».

Fededunak giñan, zorionez, eta fedea ez ukatzeko uztetan urten gen-duak eleiza atatik.

BITORIA-TIK BARZELONA-RA

Eguerdi-ko amabi ta erdietan Ipar-aldeko burdinbidearen Bitoriako egolekuan ingiratuak gengoan guztiok. Iende asko egoan: uri atako San Luis-en Batzarreko buruak guri agur ospetsu bat egitera etorrira, biajarien guraso ta senide batzuek lau milla ta erdi arturapen egiten euren seme eta aideai; adiskideak, ezagunak, ikusnai nun-naikoak; eskuemonga, agurka, iakinnaika; aruntz, onuntz, saltoka, deiez; eta nagusi lokabeen irudira, burnibideko erosgoiak ientea arantuten betiko bekoki illun da arruakaz.

Sartu giñan bakoitza bere lekuetan, io eben txiliña, eta txistua, eta *trena* lenengo birtatsi edo putzkadak botetan asi zanean... *biba* Aita Santu Erregea!!! entzun zan diadar garbi, indartsu, luze bat... eta *biba* Bizkaia! *biba* Gipuzkoa! *biba* Araba!... iarraitu eban oiuka gazte ernai batek, arnasa artuagaz Bitorian gelditzen ziranak eta burdietan giñoiazanak eranzuten genduan bitartean, bizi ta otsarekiro, gorputzean oztasun bikan bat senti-tuten genduala... *bibaaa!!!*

Buruak atera genduzan leiotsuetara. An gelditzen ziran Bitoriarrak agurka mokader da txapelakin burnibidetik eta etxeetatik.

Aidean doa *trena* Bitorian gu artzen galdu daben denpora irabazi nai baleu legez... Agur, Arabako zelaiaurak! Agur, euskalmendi tinkeak! Agur, ostazuri lerdendun, intxaur arbol goitandi, aritz gogor urtetsu, gaztanbu-ru zabaldun eta baserri zuri politen iaube zaran lur maite kutuna. Etxe ta adiskideak, agur, biran etorri artean.

Ez dedilla iñor meretsitu agurrera onegaitik. Zerbait iazoten da mai-teak diranak banakatutean, egun batzuetako bada bere, barruko senti-mentu eta gura izatea aida baten agertzeko iñoiz baiño zoliago; ume eta gurasoak gauza guztiz sentigarritzat eukiteko bata besteagandik aldendu-tea bakarra, naiz da, beste aldetik, gauza atsegiñezkorako banakatu. Atse-gin bat bestearen kontra dagonean sortu oi da bien bitartean naigabea daukan bizitzea.— Ez goiaz gu urriñera, baiña biatzatzailla batzuk bein bere urten eztaben Euskalerritik... Urgulutsu ta dontsura goiaz daruagu-lako Euskal-erria oso leñargiaren menaudia [*representación*] San Luis-en obi-rako erromerian, esan geinkialako Leon XIII-garrenaren aurrean gu gera-la San Iñazio, San Prudenzio, Asensio-ko San Martin, Berrio-Otxoa eta Santo Tomas Espiritu-Santukoaren sorterrian iaioak; baiña... aiñ ditugu maite or gelditzen diran



soro, zelai,
baso, txara,
ibai ta errekatxoak!

Mirandan batuko iakuz Deustu-n dagon Ikastegi Nagusi-ko gazteak eta Santander-tar batzuk. Baita bere ikusten dira urrutitxotik beste asko bere... O! Au ientez! au barallia! Okozpetik ia belaunetarañoko gerrikua-kaz, jaka txiki estuakñ, zorroz, ardanonteiz, tresnaz da milla mordoilloz beteta gizonak; andrak burutik okozperako *pañuluakin*, ezin iasorik euren otsara astunak.— Anaz edo peria oi da Haron da... Ia, mutillak, leku egin, estutu...

Ordu erdi baiño geiago galdu dogu Mirandan. Gu garoazan *trenak* daroa Italia-tar ipuikantatzalle aldra andi bat bere. Ni noan burdian, beste aldeko ertz baten, doaz bi, gizon da emakumea, zigarro gozoak erreten aiiñ ugari ta itxuran eze esan leike teman dabiltzala; baiña, alan bada, ira-bazten dau emakumeak.

Errioja-ko lurretatik aurrera goiaz. Leiotxuen ondoan dagozanak ederto pozartuten dira maazti aberats naroi begiraka: ni nabill ezin ipiñian ziabeste oneek neure gomutetako liburutxoan, —aiiñ nago estutua— euskeraz, inguruko guztiak gaztelar edo prantzez jardunean dagozan une luze baten. Euskeria, nire liburutxuaren orrietan bakarrik eukiko ete dozu tokia etxera biurtu arteraiño? Ez, gordeko zaitugu biotzaren erdian bere, gauzarik laztanena zarealako.

Haro! dei egiten dau burdinbideko iarduntza ill batek eta urteten dabe erri onetan biajari askok. Agur, ta ondo bizi: mesede andia ein deus-kuzue: zabalago ioango gara...

Illunabarrean eta illunduta itxi ditugu or da emen Logroño, Calahorra, Alfaro...

Zaragozara eldu baiño len gure burdian gagozan aldrakoak asi gara errosario santua esaten. Jira-bira askotan ibilli diranak bere gitxitan ikusi-ko ebeen gauza atsegingarriagorik, irakurle ipentzaua. Iduritu zaitez gau illunean burdi erreskada luze luzea, idi baltz goiante bat aurretik dabela, eia ta eia izugarri estu lasterrean, solorik solo, erririk erri, zubi-gaiñetik eta mendi-azpietatik zear txinpartak boteaz doiala baralla dunbadatsuan, txistu-oiu garrasika... eta burdien barruan, bereganduak, bake gozo gozoan, malso malsoro, Zeruraiño biotzak iasorik, katoliko zintzo eta egiaz diran gazteak erregutzen Iaungoikoaren Amari, aozko oraziñoiaren otsamar bigun malguagaz euren ibiltokiko zarata dongea estalduten dabeela... Au da, arro ta otzantasuna alkartuak, munduko aurrepena Eleizeagaz anaia-

tuta, soberbiaren barruan umiltasuna, fedea iarraikintzaren [1] erraietan. Nork ikusi dau gauza ederragorik?

Zaragozan gagoz. Ezin geinkez ioan Ama Birjiña Metarrikoa ikustera, eleiz kanpotik bada bere, berandu eldu garealako izen andiko erri onetara. Eta ori, gu arrastaka ekarri gaituan idi baltz edo ziarkia arnasa estuagaz eta izerdi larritan dagola.

Goizeko ordu-batean iarraituten dogu aurrera. Eta...

Nire lagunak lotara doaz,
Lotara noa neu bere.

* * *

Esnatzen naz Leridan. Katalunian gara! Kataluniatarrak izan ditue gure irudira Fueroak, guk legeaz gaur galduak daukez, guk baiño lan geiago egiten dabe biztuteko barriz euren izkera banatia. Gogakidaz [2] begiratzten deutset emengo iende, ibar da mendiai.

«Zorioneko arkaitzak eta
Zorioneko mendia
Orain artean zuek zara izan
Foruen gordelariak;
Zuen goietan beti euskaldun»...

Baiña ez; zergaitik emen

«Lo cor, la llar, la casa, los valls y las montanyas
Y tot y fins lo cel nos parlan catalá».

Eta zeñi ondo egiten daben. A beste onenbeste esan al bageinke euskaldunak egiaz!

Ikusten ditugu Monserrat-ko arkaitz muturrak Manresara eldu baiño pixka bat lenago, eta erri onetako galdi-lekutik baita bere gure erritar San Iñazio egon zan zulo edo lurruspearen sarrera. Ikuste onek ekarri dauskuz gogora umant aren egitada miragarriak, zeintzuen gaiñean berba egin dogun luzaro, eta, onetan, igarri бага eldu gara Barzelona-raiño.



BARZELONAN

Barzelona da Kataluniako lurren erdi-aldera Mediterraneo itxasoaren ertzean iarrita dagoan uri eder, galant, biargille bat, Kataluniaren Burutzat ezagutua, saldu-erostzaille aberatsa, duikin [industrial] argia, Espainiako urietatik egokidakoena.

Bere sortuere, gizaldi antxiñakoen laino-tartean eskutaua, ezta eza gutzen noiz da zelan izan zan.— Bere kondaira da erri guztien kondaira: gaur guda, biar bake, goizean nagusi, arratsaldean morroi, atzera ta aurrea, milla gora-bera izan ditu sortueratik gaur arteraiñoko eunkida luzee-tan.— 874-ko urtean Konde *Wifredo el Velloso* esaten deutesnak egin eban esekigobagea [independiente]; XV-garren eunkidan asten dira agintzen erbeste-ko erregeak; geroago, bere lokabeak [libertades, inmunidades] zutiñik eukitea-gaitik, gerra askotan nastaua ibilli da...

Gaur dago baketsua, guztiz asia, barritua eta denpora onenetatik bere asko aurreratuagoa. Daukatz zati bi, zarra bata, bestea urte gitxitik ona egiña. Alde zarrean ikusten dira, antxiñako uri guztietan legez, kale estuak, billunkiak, arriz txarto jantziak batzuk, denda pobre zikoitz itxurakoak eta euretan gauza merke-erdi galduak saltzeko, etxe arpegi loi ta umillak, iauregi arri-landuzko eskutudunen aldamenen. Alde barrian dagoz kale luze zuzen argitsuak, etxe andi eder bardiñak, iauregi kostu andikoak, denda ikusgarri aberastasunez beteak, plaza eta boastitz edo ibiltegi aurrenengokoak; erakusten dabela danen artean, zeinbat irabazi daben uri onek denpora batetik onara gauza gaiezkoetan [materiales], arima-koetan ainbeste, menturaz, irabazi ezpadau bere.

Eskerrak adiskide on batzuen maitagarritasunari [D. Luis eta D. Juan Marsans-ek merezi ditue ezin esan dan beste esker, bada Barzelonan sartu nintzanetik urten arteraiño izan dira nire lagun da gidari on eta jakintsuak] ikusi ditut aida batean uri onek gordeten dituan gauzarik mirezgarri eta oneenak. Sartu-urten bat egin dogu katedral santu edertasunez beterikako andi-goian; begiraka egon gara San Ibo-ren ateari, sarrera barri godoetar egitada gizako apainduaren aurrean (katedral guztia godoetarren gisan egindakoa da) eta dorre leio luzedun panparroiar. Ikusi doguz Arzedianoaren etxe kondairabea, ikasleku guztirako edo nagusia, [universidad] Zerbantes eskribatzaille illezkorra bizi izan zan etxea, *Parke* izeneko pasea-leku bardinbagea, erromatarren denpora-ko dorre ta arri ezkribidutakoak, Birjaiotzako [renacimiento] murrutziak,

musaga [museo] eta elkargoe [sociedad] batzuk, naiz da gauza guztiak itxi badi-tut bere, naigabe andiagaz, bear zan beste iaramonik egin bagea...

Gero ioan gara Kristobal Kolon-en oroikarri oiñtsu egindakoa (1888-an) ikustera. Oroikarri au Buigas iaunak asmau eta arteztua da: daukatz mugaisi [plataforma] bat, neurtoski [metro] 1 goruntz eta 26 marrerdi edo girau dituana, eta beste iru zati edo gorputz alde.— Lenengoa, arri landuzkoa, gurpill andi baten erara inguruan biribildua, goialdera meetu-ten duana; ditu goruntz 3,50 neurtoski eta 18 jiran, eta dago apaindua brontzezko iduri mee ondo egiñakaz Kolonen bizitzako gertaerarik andienak aurkeztetan dituala.— Bigarren zatia kurutzearen itxurakoa da eta amar neurtoski daukatz goialdera: gurutzearen besoetan dagoz lau etxeakoandre, Katalunia, Aragoia, Gastelua eta Leoia probintzien sena-dien; txokeskietan [ángulos] Boil, Santangel, Margarit eta Blanes-ko Ferrer-en irudiak; eta alboetatik beera brontzezko medaillatzarrak Isabel I., Fernando V., A. Juan Flores da Andrés Cabrera, A. Martxena eta Markes de Moya, Martin da Bizente Pinzon-en buruntzakaz. Irugarren zatia beste bien gaiñean dago eta daukatz irozpeko [zócalo] andi bat, 40 neurtoski, ingu-ruko metarri luzea, kondien koroe bat onen gaiñean, eta gorago boillos [esfera] txukun urreztua, non dagoan Kristobal Kolon-en irudi beñargia.

Oroikarri au egiten gastau ziran milloi bat peseta.

Kanpotik ikustea amaitu ta bereala sartu gara barrutik daukan igo-tokian [Eztaikit zelan esan leikian euskeraz eurdaldunen berbia ascensor] koroia egoan leku-tik Barzelonari begiratzearren. Giñan nire gidari on biak, beste kalean batu iakuzan erromeri-zale bi eta ni bostgarrengo. Goruntz asi garanean igo-tokiko ateak iregi deuskuez begiratu daigun zelan goiazan gora, eta orduan, erromeri zale batek, gauza bat bestien alboan doianean izaten dan irudiak begitandurik, esan deusku erderaz: *El tubo en donde estamos va bajando*. Eta beste bere lagun piska bat argiakoak erantzun dau: *No hombre, subir porque hemos*, nongoa zan garbiro ezagutzen emoten ebala.

Bein koroera ezkerre ikusleku atatik agiri dan saill andi zabaltsua zoragarrienetakoa da. Alde batetik Barzelona-ko ezin kontau ala teillatu eta beretan argi-zulo kristalezkoak dizdiz egiten eguzkiaren erraiñuakaz; kalien ari luzeak arontz-onontzko jentetz eta burdi lasterkariz beteak; danen gaiñetik eleiza eta komentuetako dorreak lurretik zerurontz iaso-ten diran buru Jaungoikozkoak dirudiela; *Parke*-ko Egunsentia-ren burdi erreztua zaldi sutsuak aidean daroela uste dana eta ekintza edo fabriketa-ko tximini batzuk kee matasa baltzez zikintzen egun argia... Beste aldetik Portuga, erri mueta guztietako ontzi desbardiñez iosia eta itxas zabala berezko anditasun bakar eta neurribageagaz... A! Zer gauza eder goitandi



ta zoragarria dan au!...— Bai, andia da Barzelona bere edertasunagaitik... bere kondaira, leñargia, aberastasun eta iakindiagaitik, duikiñ indartsua daukalako, eskribu ta liburu-zalea dalako, Kataluniatarren iskuntza gorde ta aberasten egin dabenagaitik andia dan modura.

Kataluniatarren izkuntza aitatu dot! Guk Euskal-errikoa baiño zenbat geiago landu daben emengo jenteak! Orain berrogetamar urte berba bat etzan ezkribiduten Kataluniatar, eta gaur, iakin dodanez, badira izkuntz onetan eskribiduta bi eguneroko paper, amabost edo geiago asteen-beingoak eta beste onenbeste amar egunetik amarrera, amabostetik amabostera eta illetik illera-koak, eta guztiak erbestietan argitaratzen diranak aiñakoak gitxienez, eta danak Kataluniatar egiñik. Eta zenbat liburu? Eundak eta eundak, kondairaleak, bertsoetakoak, belarren ezagurakoak, lur langintzakoak, aski iakindekoak, [filológicas] errelijiozkoak, iritarau edo politika-ren gañean egiñak: itz iostaldietan saristautako lanakaz bakarrik batzen dira ogetamarretik gora. Eta, azkenez, *Atlántida* deritzaion liburu doagarai, miragarri eta entzuera andikoa Kataluniatar eskribiduta dago eta oraindik ez antxiña...

Arratsaldeko seiretan Merzedeko Eleizan euki dogu iai errelijiozko bat. Lenengo kantau da errosario santua eta gero egin dau berbaldia Iesusen Lagundi-ko Aita batek. Esan deusku: «Doetxuak garala santuen, batez bere gaztien Patroi San Luisen autseen aurrean, Eta Aita Santu Leon XIII garrenaren oiñetan belaunikatutera goiazalako. Pozez beterik begiratuko deuskuela Zeruetatik aingeruak eta enbidiaz beterik munduan ainbeste katoliko gugaz etorri naiko leukeenak; eta andia izango dala gure saria, iñoiz baiño biarrago danean, fede-bagakoak euren eskola guzurrezkoak egiazko eskolen kontra ipinten dituenean, agertzen dogulako bizi-ro-tzean gordeta geunkan fede Santuak».

Gero egin deuskuez oarkera batzuk, erromeria-ren gaiñean eta amaitueran mun egin deusagu erromeri zale guztiok banaka banaka Merzedeko Ama Birjiñaari eskatuagaz laguntasuna gure ibillerarako.

FRANTZIA-TIK ZEAR

Agorraren 14-an

Eguerdiko amabi eta 23 erizpi *minutuetan* prest egoteko esan deuskue Tarragona-tik Barzelona-ra eta Fiantziara-ko burni-arien geldu lekuan, eta emen gagoz pardeltxuak aldamenean eta ioan-etorriko billeteak eskuan ditugula. Euskaldunak larogeiren bat gara: seireun gitxi gora bera Españatar guziak, Balenzia eta Kataluniatarrek ugarien, bat edo beste bakarrik Gaztel-errikoak. Izkuntz eta iaskereen desbardiñtasunari begiratu baga (Euskaldun geienak txapel urdiñakaz dagoz) arpegian ezagutu leikeala uste dot nor nongoak garean: bakoitzak bere erriko zigillua daroagula esan leike. Zer bearleku polita artu neikean oraintxe geldu leku onek daukan laurka bizi ta gozozkoa ziabestetuten!... Baiña eztago astirik: deitzen deuskue trenera eta baguaz.

Emen bere trena asten danean San Andres alderontz, *viva España! viva la Virgen! viva el Papa!* diadarrak entzuten dira. Bai, iende ona, bizi beitez; eta ez dedilla bein bere amatau Euskalerrria, Ama Birjiña eta Aita Santuarentzat erakusten dozuen seme onen amodioa. Etzaitezeela izurritu [contagiar] sekula zuen alboan, menturaz, gure Ama maitea madarikatu eta Leon XIII-garrena berba loiakaz iraintzen dabenakaz, Bizi bedi Aita Santua! Bizi bedi gure Ama garbi zerutarra!

Erromeri onen buru egiten dabenak papertxu bana emon deuskue oarkeraz beterik biderako eta Erroman zelan ibilli iakin daigun: bakoitza bere ezaguerako papera [célula personal] bear dabela; pardo andarik ezin genikiala eruan; Españiako diruak, *O tempora!*, urrea ezpada, eztabela balio ez Franzia eta ez Italian; bear bearreko *tabakua* baiño ez arren geiago eroateko, bada Dierrietako mugeetan ikusarazte edo errejistro oso estuak izango zirala. Onetan nengoan irakurten, *trena* gelditu iakunean San Miguel eta Billamaya-ko bideerdietan, zer daben eztakigula. Lurreratu gara batzuk. Zer da? bata, zer da? besteak itauntzen dabee. Ezer ez: uboill [tubo] batetik aizeak urtetzen deusala *makiña* edo zearki arrastariari: apur batean, beste zearki bat etorri artean, itxaron bearra. Iaisten dira biarjari danak: bero dago... putzu bat bide ondoan... iende guztia doia edatera. Kataluniatarrek *aigua*, balenziarrak *aguia*, gaztelakuak *agua*, baiña guk ur preskua.



Zaiñ gagozan bitartean arautu gara bizkaitarrak gure nagusitzat datozenakaz Erroman euki bear dogun ostatuaren gaiñean. Gomendioz-ko *karta* edo eskutitz asko daukaguz; baiña billatu deuskuen etxean gelditu gara gu [Ez gaur beste iakin bagendu. (Oarkera au zianbeste oneek argitaratean ipinten dot)].

Etorri iakunean beste *makiña*-ren laguntasuna, bagoaz aurrera...— Gerona-ra eldu garanean iende pillo aundi bat egoan geldi-tokian eta abegi on bat egin deuskue geienak. Eskerrik asko Gerona-tarrak.— Figueras-en ostera txistuka etartzen gaitue. Batzuk oiuegiten dabe, ¡fuera!... ¡fuera!... kanpora beraz? Eta *libertadea*-ren izenean izango da, e?... ¡¡Fueraa!! Bai, gizonak, bai; bagoaz; eztaukagu zuek az egoteko gogo andirik. Zueri bere eskerrik asko, iende ondo azia, eta gorantziak... *libertadea*-ri.

Port-Bou! Españaiko azkenengo erria. Berandu eldu gara. Gabak zabaldua dauko betiko soiñeko baltza lur guztia-*ren* gaiñetik. Atzera begiratzen dot: illuntasuna bakarrik dakust: gagozan lekuan argi erreskada batek erakusten daustaz oraindik gure Dierriaren arra batzuek...

Cerbere! Franzia! Erbestetu gara. Emen dagoz mostatxodun gizonak gure pardelak begiratzeko prestatuta. Ara... ikusi... ez gara kontrabandozaleak... *Très bien*...

Erdi lotan entzuten dot, Perpignan! La Nouvelle! Narbonne! Beziers! deitzen dabeela; baita iñoiz begiratu bere, leiotxuetako kristalean intxea piskat kenduta geldi-toki batzuei, ixill ta oztasun loguragarrian egozala.

Cette-n gagoz oraiñ: goizeko ordu biak dira, baiña bota eragin deuskuz nagitasunak geure buru eta pardelak beste tren batera [Paris-tik Lyon da Mediterraneo-rako arira] aldatu bearrak erri onetan.

Agorraren 15-an

Franziako eguzki goiztarrak bere erraiñu alaiak atera dituan ezkeretik, nator gozoro begiraka, batez bere Tarascon-dik aurrera, emengo zortitzaren [naturaleza] aberastasuna. Ikusten dira ibar naroak zabal batzuetan, estuago bereala, beti berdez iantziak; zelaia-*ren* bei mamintsuen ianari egiñik; solo ederto landutakoak, andikien baratz orma neurtuz gordeak alort [fruta] ugariz beteta: arbolak nun nai orri zabal, estu, andi, txiki, gogor, bigun, mueta guztirakoak; intza biribill, polito garautua baratze-tako lora apainduetan legez kanpoko landara umill eta bide txindorretako

bedartxuen kolkoan, arbola ondo zainduen ostruetan eta elorri edo gisats urruingarrien adarretan bardin bardintsu dindilizka... lurraren gaiñean agiri dan gauza guztia edertu naian maitagarriro.

Dana iuket gura dodan baiña ariñago. Beti nai neuke neure aurrean euki laurka au. Nire begiak alde guztietara jira-biraka atsedetik ez dauke: gura nituke gorde emengo argi, kolore, lur ta marboilla [horizonte] nai dodan beste bidar ikusteko neure irudesleagaz oraiñ dakustazan gauza dan danak, sentiduteagaitik orain daukadan arintasun eta gorputzeko zarrada bizitza barri baten antzerakoa.

Trenak eztauka nik legez mirestuterik: *drakaladaka, drakaladaka* ego-bearkiro aurrera doa beti.

Zortziretako sartu gara Marsellan. Zerbait nai al zenduke iakin, irakurle ipensaua, uri onen gaiñean? Bada beste bide bat billatu bearko dozu nik esango deusdunagaitik. Ordu bi ta erdian gelditu gara emen, baiña naikoa zeregin euki dot neure sabelari emoten eskatuten ebana, eta gorputzeko ugar, zetaka eta traskiltasuna kentzen. Egia da ni ikusmiña nazona, baiña ikuszaleak bere ian ta garbitu bearra izate dabee goseak eta ugar-*ren* amaituko ezpadiu.

Emen berba egin dogu gure nagusi Tortosa-ko *Obispo* iaunagaz eta esan deusku *euskaldunak jatorri onekoak* garala. Zelako atsegiña emon deuskun! Euskaldunak izen ona daukagu oraindik munduan, oraindiño... oraindiño...

Marsellatik urteten dogunean bero andia sentituten da.

Trena gelditzen dan toki guztietan bultza-bultzaka gabiltza danok *zerbeza* edo beste erari preskatzaille batzuek artu nairik. Eta ikustekoak dira guk emoten deusaguzan estu-larriak geldi tokietako dendetan dagozan saltzailleai. Guztiok eskatzen dogu batera; euskeraz batzuk, kataluniatar besteak, gaztelar beste batzuk; eta une batzuetan gelditzen da saltzaillea zer egin eztatik, alderdi guztietara begiraka, berba bat asmau eziñik, zenzunik бага, bizkaitar batek diñoanez. Baiña dana da *miñutu* batzuetan amaitzen dan gauzea. Bakoitzak artzen dau gura dabena apaletik, (eta onetan mesede andia egiten iako saltzailleari, zergaitik eskale danai ezin arretau deutsez ondo) itauntzen da zeinbat balio daben eta emoten iako bear dana.

Ordurako entzuten dira deadarrak: ¡*En voiture s'il vous plait!*

Tolon-eko portuan dakusguz gerrako ontzi batzuek, aingurak ondondan dituela, geldi geldi, zirgiñik бага itxas urdiñaren gaiñean. Kerik eztauk-*ee*, gizon mariñel bat ezta ikusten, burni-bidetik begiratu ta oso baltzak



emoten dabee. Ulolean buituta [hincharse] dagozan bidutzi [mónstruos] illak dirudie...

Cannes, Niza, Mónaco, Monte-Carlo, Menton... agertzen dira gure begien aurrean erri-kate luze baten gartza loratsuak legez. Lurra dago oso narotsua; gure eskerreko aldetik baratz loraz beterikakoak; ezin esan-ala iauregi, landetxe, *chalet* asmorik burko itsuenekoak ia estaldurik arbola guztirakoen ostotartean. Eskumatik itxasoko olatu bigun makalak *txipli-txaplan* dabilta aitz tarte, arri zee eta ondarrean, gelditzen dala ondar guztia malla bardin politez kiskurra olatuen iostaketa, jira-bira eta zurrunbilotxuakaz. Bajarai geienak burdi-leiotsuetan dagoz, eta euren aotik urte ten dabe daukeen mirestiaren esan gozoak... itxas ipar emeak, gure esanak eskertuten balitu legez, bigun-bigunkiro gure arpegiak gozarotuten dituan artean. Erara datoz aize *preskuaren* palakatuak [caricias] orain artean euki dogun eguzki kiskalgarriaren ondorean.

«Egia, alde guzietan
Toki onak badira...».

ITALIA!

Milla arasu eta zeregin mingatx euki ditugu Vintemille deritzaion Italia-ko lenengo urian, bada emen izan dira barriro pardel ikusi bearak eta Italiako burni-arietarakaldatau premiñak.

Baiña, Iaunari eskerrak, bakoitzak billatu dogu nolabait geure tokitxua eta bagoaz aurrera. Gabeko zortzirak dira eta Italiako lurrari begira nago. Au da Italia, diñot neure artean, au da Italia, biurtzakintzaren [poesía] eta au utegien [artes] erria, Europako baratz ederra, zeruetatik lurrera jausitako zati bikaiña, ainbeste bidar ames egin dodan Italia bere zeru urdiñagaz, bere illargi zuriagaz, bere zulanpoakin [lagos] bere gandolakaz, bere izkera bigunagaz, bere kanta eztitsu Euskalerriko zortzikoen antzerakoa-kaz; au da Italia ainbeste bidar ikusi dodana paperetan ziamartua orain egiaz eta dan modura neure begien aurrean dakadana.

Eta illargia emen dago iñoiz ikusi eztodan aiñan garbi ta ederra, ez bakarrik maitagarritzen sortitz guztia baita bere gauza onean zeregindua, argi egiten euren lanean emen ikusten diran arrantzale gizajoi etxadi edo familiarentzat ogi zati batzun billa dabilbazan artean.

Buruillaren 16-an

Gaberdian eldu gara Genova-ra, baiña nik ikusi dodan Genova ezta ziamartetan ikusi izan doguna. Nik eztot ikusi izen andiko uri au eskille-ra mailletan legez ugolkoaren [golfo] aurrean iarrita dagoala, nik eztot ikusi iauregi-zar kondaratzurik, eztitut ikusi bere etxe goloreztu iruderrekoak [vistasas]. Nik ikusi dodana... beste edozeiñ erriren gizako geldi-leku ari-meari izer esaten ezteutsan bat bakarrik da. Kristobal Kolon-en sorterriko atetan egon eta ezin barrura sartu!

Baiña ezta gertau olakorik Pisa-n. Ia iru orduan gelditu ez gara: iru ordu ondo progoistuak. Eztakit zelako samiña eta negargurea emoten deusteen lenago andi izan diran iende ta gauzak urri, makur eta izereztuak ikustean. Esan leike euren arpegi eta izate guztian darabillela damorri [melancolía] triste baiña leiñargi bat, damorri bat euren artean dabillenari ezarten iakona, biotzik badauka beintzat. Zeiñ irago ete da iñoiz koroia galdu daben errege baten aldamenean errukitasuna sentidu бага?



Pisa-ko kalietan zear niñoiāla uri onen antxiñako anditasun eta alizatea gomutaurik, eta oraiñ begiratzean erri txiki baten itxuran dagoala isill ta baketsua, euki dot tristura apur bat; baiña pentsau dot maitagarriagoa dala oraiñ umill dagoanean bere alizate andiēnean baiño; bada altsutasuna eta arrokeria alkarren ondoan ibiltzen dira geiēnean.

Arrada baten iatzi gara lagun batzuk *tren*-eko gelditokian egozan manurga edo kotxietan Katedral-eko plazara (*Piazza del Duomo*) nun dagozan uri onetako gauzarik ikusgarrienak: katedrala. Dorre okerra (*Campanile*) Batiolekua eta Kanpo santua. Katedrala iasoten da mee, lerdan eta lirainkiro plazia-ren erdi-erdian. Bizanzio-Grezia eta Erromatarren egintza moduak nartaurik dago egiña, marmol baltz eta zuria biñakidautā [*combidados*]; arpegi edo aurea guztiz da ederra eta sarrerako ate nagusia, brontzeskua, Maria Santiaren bizitzako gertaerakaz oso apaindua. Barruan kanpoan baizen ederra da: bost otoigope [*naves*] daukaz eleiz jira guztian balkoidi eder andigoitia: altara danetan dagoz santuen irudi ondo egiñak, pintura, otaillu [*escultura*] eta zizelan gizonik andienenak.

Eleizatik urten da bereala sartu gara Batiolekuan: au da egintza bat katedraletik banakatua dagoana, biribilla, arri piñez egindakoa. Bere erdian dago marmol zurizko aska andi bat, bertañ sartuta batietakoa, eta albo batean sermoileku edo pulpito bikaiñ bat Nicolas Pisa-kok egiña. Dauka gautera Batioleku onek uztatzin [*bóveda*] bat mireztiturik itxi gaituana: ara zergaitik. Erakustzailleak ixildu gaitu danok eta asi da geldi geldi, malla mallaka deadar neurtu batzuk egiten... eta an goialdean sortu da, biarzunagaz, soiñu bat aiñ gozo, aiñ leun, aiñ gora bera polit, aiñ naste eder eta atsegingarria eze, guztiok gelditu gara arritukurik gora begira zeruko aingeru aldraren bat ikusi bear ete genduan ustean gure gaiñeon... eta azkenengo oiartzuntxoak mee... meekiro... amaitu diranean... danok bat batera eskatu deutsagu erakustzailleari egin daizala barriro lengo deadar maillak bigarrenaak euki daigun atsegin lenengokoa.

Batiolekutik ioan gara Kanposantura. Zer naibagea! Utsagiri [*patio*] triste atan dagozan taillu, obi, iskirotallu [*inscripción*], arruztai eta pintura zintzo gosartariak... eta nai zan beste denpora euki ez ikusteko! Juan de Pisa, Giotto, Andrés Orcagna, Benozzo Gozzoli-ren egintzarik amaituenak gure aurrean eta begirune aideko bat baiño ezin egin!

Kanposantutik urtenda beste begirune bat egin deutsat Dorre-okerrari. Batzuk gora ioan dira: nik eztot astirik izan. A! Iñoiz al badot etorriko naz astiroago Pisa-ra eta orduan ikusiko dodaz obeto emengo oroikarriak. Iaungoikoak nai izan daiala. *Trenera* orain.

Gu erabilli gaituan manurgaria [*cochero*] legezkook badira Pisatar guztiak, Pisako iendeak eztabe Pisa merezi. Beste batzuk aiña eta anbat geigoan arautu gara Uriko jirabira egiteagaitik; alan emon bere deutsagu; baiña oraindiño geiago kendu nai euskun, ezaguturik arrotzak giñala. Eskerrak an ebillen erri-zaintzaille bati...

Beste gauza ziabesgarri бага egun onen illunabarrean ikusi dogu Erroma.



ERROMA-N

SAN PEDRO-KO ELEIZEA.— BATIKANOA

Erroman sartzen dan biajari baten pentsamentua, eta askozaz geiago biajari au bada *katolikoa* da Batikano deritzaion eliz goitandi, aberats, munduan dagonik andiena ikustea. Eta ez bere andiedertasunagaitik bakarrik eroana, ezpada eze an dagolako gure Erlijio santuaren sustraia, Eleiza santuaren lenengo arria, Iesu-Kristoren Ordeazko beneragarriaren bizilekua, kristiñau danen guraso maitea. Da biotzak deitzen deuskulako gure Aitagana. Nor da guraso baten errira eldu ezkerro, gurasoari agur maitasunezko bat lenengo egiten ezteutsana edo besterik ezin bada, bere osasunagaitik itauntzen eztabena?

Ori izan da beintzat nire aurrenengo irudidea, Aita Santua ikusi ezpadot bere. Iagi orduko sartu naz manurgatxu batean. *Alla Chiesa di Santo Pietro* esan deusatz gidariari. Igarri бага, uste baiño lenago, gauza bati eta besteari begira, aurkitu naz San Pedro-ko Plazan. Gelditu naz piska batean begiraka plazeari eta jiran egozan arroin [*columna*] eta tailluai: zar itxuria artu deutset, ez deuste egiñ uste neban aiña mugidalda. Igo ditut Eleiz aurreko eskillera mailla zabalak; sartu naz eleiz barruan iakin- naidan; begiratu dot bat-batean alde guztietara; aurreratu naz sentikorra erdi erdiraño... eta an marmolezko metarri sendoakaz beteikita [*sustentar*], lurreen dagon boillerdirik andienaren azpian, San Pedro eta San Pablo *Apostoluen* auts aurrean umill belaunikaturik, erregutu dot apur batean biziari Aita Santu Leon XIII garrenagaitik, Iaungoikoak librau deian bere presondegi gaiztakiñetik.

Neure oraziñotxua amaitu dodanean asi naz alderdi guztietara begi- ra barriro, bost otoigope zabaletan jiraka, gelditzen nazala izuturik meta- rri, altara, pintura, taillu, oroikarri bakoitzaren aurrean; begiraka gora, bera, alboetara, lurreko arri nabartxoaz egindako ziamarrei, boillerdik urrez- tuari, gauza bakoitzaren atalei, Eleiza guztiak daukan andientziari [*majestad*] nire begiak neketan eta biotza artega daukadala, ezin adituan nabillela zelan dagozan baturik ainbeste marmol, zillar, urre ta arri piñ.

Naskidatuta gelditu naz lenengo begirunean, eta orregaitik neure zentzun argira etorri nazanean asi naz osterana dana obeto eta manerauro [*ordenadamente*] ikusteko asmoetan.

Iarri naz ate-ondoan. Askotan irakurri izan dot lenengo begirunean ez- tala igarten Eleiz onen anditasun guztia: alan dirudi. Toki onetatik ikus- ten dana esan leike ez- tala gauza arrigarria. Baiña nire buru gaiñeko urtai- tziña goi dago; bai, guztiz goian: eta zabala da; bai, oso zabala: luzea, egiaz luze: ederra, eztot ederragorik ikusi. Emen alboan daukadazan metarriak andi ta sendoak dira ezin geiagoan; eztaukat dudarik: metarri batetik bes- tera pauso asko dago; asko benetan: metarri gaiñ eta txokesketan dago- zan santuen tailluak ondo amaituak dagoz; baita. Eta bost otoigope dau- kaz olakoak, 88 metarri bardiñak, altara asko ikusgarriak, ezta- kit zenbat oroikarri gaikeran egiñak, eta an ikusten dodan iendeari txiki deritxot, eta... bai, bai, andia da, ederra da eleiza au; baiña añ dago ondo neurtua dana... Egin daigun beste jiratxu bat. Ai; ene! Orain ezagutzen dot obeto andiedertasuna, nekatur nago, baiña ez gogaitua. Goazen osterana, egin dai- dan beste jirabira...

Zeiñek esan ikusi dodan edertasun ugari guztiai! Ezin neike. Baka- rrik zia- bestetuko dot egonazala bigarrean begira boillerdien azpian bedeinkatuten Migel Anjel-en izena; Klemente XIII-garrenari egindako oroikarriaren aurrean, siñistu eziñik tailluaren beian dagozan leoiak arriz- koak dirala eta bildur antzean ikutzeko, eta beondastuten [*contemplando*] brontzezko altara-nausia, non aidatuten dabeen San Pedro-ren sillea edo iarrilekua, Berninik apaindua, lau Eleizako gurasok. (San Atanasio, San Juan Krisostomo, San Ambrosio eta San Agustin dirala uste dot). Iakiñ egizu, irakurlea, Erroman, San Pedro-ren eleizan billatuko dabela ekidari [*arquitecto*] eta mane zaleak zer ikusi eta zer ikasi asko; biajari iaungoikozko- ak gauza donekarriak ugari; baiña ni ez nazala duiñ ainbeste edertasunen barririk ondo emoteko.

Templo goitandi au betik ikusi ta igon dot boillerdiko galeri bietara obeto urretik ikusteagaitik bertan dagozan arri nabartxuakaz egiñiko zia- marrak eta eleizan egoan iendeari goitik begiratzearren. Bildurtzekoa da balkoi aretatik bera begiratzearren, ikusgarria andik ikusita eleizan dabilen iendeak dauken itxurea...

Kanpoko-alde- tik boillerdien goien goienara igon dot gero. Andik ikusi dot neure gustora Erroma dana. Etxeak zirudien euren Nagusiaren deira millaka-millaka batuta egozan gerralariak; esan zeikean Nagusia zala Batikanoa eta beste eleizak nagusi beragokoak, Iaungoikoaren etxeak zireala, Selgas-ek esan eban moduan gizonen etxeen buru ta zuzenlari. Egiaz, munduan bizi garean bitartean gerralariak izan biar dogu [*Militia est vita hominis super terram*] eta, zeñ izango da gure gidari ohea Eleiza santea baiño?



Zer goratua nagon, niñoan, goiante onen buru gaiñean! Mendean daukadaz etxe ta iende guztiak iñoren laguntasunagaz igoten daben gizon txikixuen antzera. Baiña ez naz ni andiagoa nagoan lekuan nagolako eta ezta iñoren sorbaldetan dabiltzanak bere, uste izan arren euren burua besteena baiño geiago dala, nik orain uste dodan legez San Pedroko plazan dagozan guztiak nanoak direala. Baiña, zeta iatorkidaz olako pentsamentuak? *Velay*, esaten ei dabe Gaztelanian.

Ordua da ta iatsi daidazan 138 neurtoskiak [Au irakurri dot ala etxonpetik kurutzer a dagan goiendea] eta noian bazkaitara. Sei ordu igaro ditut Batikanon... *Al Campo Marzio, Hôtel Sopranzi*.

Bazkalondoan urten dot bigarrenean Batikanora, Iauregiatara. An igaro dot arratsalde on bat gozarokiro. Plazako gauzak bere obeto oartu ditut. Benetan da andi San Pedro-ko plazea. Galeri bi okertuak bata bestearen aurrez aurre baiña urriñ, eztaikit zenbat metarri ioniko arrakaz [del orden jónico], eta gaiñean taillu andiak... eta zarrak. Plazearen erdian beste metarri 140 neurtoski goruntz dituana aurrean, eskillera maila zabal batzun gaiñean, elizpe andi bat arroin sendoakaz; onen gaiñean balkoi eder luzea eta taillu geiago oraindik, eleizara sartzeko bost ate zabaltxuak, bat bakarrik iragita. Au da plazan oartu dodana.

Eleizperaiño sartu barik artzen da eskerretaruntz Iauregiatara igoteko. Atean billatu ditut Iauregi eta Aita Santuaren zaintzaileak, zuzen, mena, alabardeak eskuetan dituela iantzi pintanuakaz; (ori-gorri-baltzak biñakidauta) txapelak daukez batzuk luma bategaz, kosketaldi galtzaiduzkoak beste batzuk.

Lenengo ikustamena *Sixtoren elixoka* [Capilla Sixtina] edo kapillara egin dot. An egozan ingeles gizon ta emakuma batzuk iarrilekuetan erdi etzanik, betaurreak eskuan zituela, gora eta alderdietako ormetara begira. Iarri naz neu bere eta ioan iataz *Asken erabagia-ri* [juicio final] eta beste Migel Anjelen gai askori begira ordu bete ta geiago. Zer egia dan pintura au! Gizonaren gorputzeko atalak zein ondo ezagutuak agertzen diran! Zein soma andia ziamartzan! Zer gaikera Migel Anjel-ena, zer gaikera! [habilidad].

Sixtoren kapillatik *Errafaelen Ganbaretara* noiala pentsetan ioanaz zelako indarra eta erakardera daukan maneak, gizon andien egintzeak. Or egon gara, pentsetan neban, alkarren ondoan ingelesak, beste eztaikit nungoak eta ni, Euskalerriko semea, danok gauza bateri begiraka mireztituri, batzuk mena, besteak esan bearraren esan bearrez ia lertuan. Egun batzuk barru nik erabiliko dot Migel Anjel-en izena neure mendi-tartean, eta bardin egingo dabe orreek Ingalatierra edo beste errietan. Zabalduko

litzateke bada laster Buonaroti-ren izena alderdi guztietan, ondo zabaldua ezpalego. Eta au, zenbat bidar gertauko zan onezkero!

Ganbaretan dagoz, mundu guztiak dakian legez, *Sakramentuen egarkia* [disputa], *Parnasoa*, *San Leon Atila gelditzen Erromako atetan*, *Bolsenako miraria*, *Konstantinoren gudua* eta beste gai asko Urbinoko semeari daukan izen andia emon deuseenak.

Pinturen Musagan billatu ditut ainbeste bidar izentautako *Iaunaren Bestiruditzea* [La Transfiguración del Señor] *Madonna di Foligno* ondo entzuna, *Ama Birjiñearen Koroiera*, etcétera, etc. Errafaelenak, eta baita bere Dominikinok egindako *San Jeronimoren askenengo Komuniñoia*, goizean, San Pedro-n aiiñ ederto arriakaz erabestetuta ikusi dodana.

Nik eztot izer esango egintza maisuar oneen gaiñean. Ainbeste esan da! Ainbeste eskribatu da! Eta gaiñera, ni zein naz?

Musaga onetako pinturak antxiñakoak dira geienak, baiña danak balio andikoak: barrien artean deitzen deust begirunera *Viena-ko irabaskida-k* [La conquista de Viena]. Poloniatarrak Leon XIII-garrenari eskeiña da. Iakintsuak diñoe utsaldi andiak daukazala: izango da, baiña, nire iritxiz, ezta nonnaikoa egintza au. E? Zer esan dot?... Nagoan ixillik.

Eztaikit zerk nakarren ostera Batikanora, Iauregiatara, beste Errimak daukazan ikuskizunak geroko itxirik. Ez naz bakarra: beste erromeri-zale asko dakustaz gora-bera, batera eta bestera, emengo eskillera maila zabaletan. Ez naz bakarra, baiña bakarrik nabill eta neure gizara, onezke-ro ezagutuko zenduan, irakurlea. Beti dabill nigaz lagunene bat, baiña ez beti bat: bakoitzak bere *gustoko* gauzak daukaz eta nik neureak: bakoitzak bere ekidaraia [método] eta nik neurea. Orregaitik banakatuten gara.

Zelan etorri ez Batikanora emengo ikusgarriak bein bere amaituten ezpadora? Esan daiela au egia ezpada *Tilau Musagako galerietan* dabiltzanak. Galeri oneek erri bat dira edo arrizko iendedi andi bat, Española biajari batek esan eban legez [D. Pedro A. de Alarcón. De Madrid á Nápoles, t. II].

Emen bai artista ikasinaikoak daukala zer ikasi! Zeinbat gizon, zeinbat emakume, zeinbat animala, zeinbat buru, zeinbat zati, zelako itxurakoak, zelako esagerleak.— Egiaz, Greziatarrak ondo artikasi eben gizonaren gorputza!— Eta zeinbat obi antziñako, zeinbat ontzi, zeinbat izki-rotailu nork daki nongoak! Amaika gauza eder badago!... Aurrera, ezin geinkez geratu danei begira.

Azkenerako itxi dot gauzarik ederrenetako bat. Oraindik oso gazte nintzala egoten nintzan pintatzaileen ikasleku modestitxu batean, *Laokoonte-ren aldra* paperetan ziamartuari eta lurragaz egindakoari begira. Emen daukat orain marmolezkoa, lenengokoa, greziatarren atsaparretatik urten



eban modura. Bein bere ikusi eztodala esan leike, ain mugidalda barria egiten deust. Guztiz erakidara eta nik ezin esan neikean legez dagolako emen ipiñiko dot Alarkon-ek aldra onegaitik diñoana: «¡Oh prodigio! No basta conocerlo, como lo conoce todo el mundo, por el vaciado, por el grabado, por la fotografía. Acontece con estas obras maestras que, después de serle á uno familiares por las muchas y excelentes copias de ellas que hay en todos los grandes museos de Europa, todavía cree verlas por primera vez cuando examina el original. ¡Y es que ni el vaciado ni la copia tendrán nunca la morbidez del Páros ó del Carrara, modelado por aquellos magos del arte y bruñido por miles de años! Quien no haya visto estos modelos insuperables, asombro de generaciones de artistas, no sabrá jamás hasta qué punto puede animarse la piedra bajo la mano del escultor, ni cómo una forma precisa y dura adquiere el indeciso contorno de la carne y la suave vaguedad del movimiento... Ved, si no, á *Laokoonte*: vedlo pugar con las serpientes que lo ahogan, y ahogan al par á sus hijos; ved la infinita angustia del rostro del padre; ved sus atléticos esfuerzos, sus miembros crispados, su desesperada actitud, y decid si aquello es materia inerte; si aquella boca no se queja; si aquellos brazos no luchan; si aquellos ojos no lloran lágrimas de sangre!».

Ori da, benetan.

Noiz amaitzen dira *galeri* oneek? Oraindik ikusteko daukadaz *Ejipto*-ko *Musaga* eta *Liburutegia*.

Liburutegian gordeten dira 25.000 baiño eskuskribu eta geiago eza gutzen diran izkera guztietakoak, eta 30.000 liburu moldizkirauak, eta gaiñera eztakit zeinbat pintura, medailla, taillu, guzurrezko iaungoikotxo... Alakoak dira tokiak! Sala batek milla oin daukaz luze. Esan leike alde bate-tik bestera goiazanean beste erri batera goiazala. Oso nago nekatua.

Aita Santu Leon XIII-garrenari urrezko ezteguen erakaian eskiñitako gauzak begiraka nabillela billatu dot euskerazko liburu bat Euskalerriko berba neurtzaille anaiak biraldua. Pozkida andi bat artu dot ainbeste moduko izkereen ondoan, Erroman, Batikanoan, neure euskera billatzea-gaz.

Ejiptoko Musaga bete beterik dago gauza onkarrizkoz eta aberatsez, egokaira Faraonen erriko kondaira ikasi izan nai ezkeron.

Errazoiagaz esan giñaike katolikuok guzurra dala *Erljio* santuaren etsaiak diñoena, au da, Eleiza santea dagola argiaren eta iarraikintziaren kontra. Emen daukagu kristiñau katolikuen erdian Aita Santuen bizilekua; birtaratu [recorrer] daizala edozeiñek bertako sala ta galeri luzeak, antxiñako egintza zarrez, manez eta izkirazko aberastasunez beteak, eta fede onekoa

bada, esan bearko dau: guzurra da Eleiza argi eta aurrekuntza egiazkoen etsaia dala; Eleizak maite, gorde eta bedeinkatzen ditu iakindeak, *letrak* eta maneak; Batikanoa da iakindeen, letreen eta maneen gordeleku maitagarria.

ELEIZ FESTA SAN LUIS-EN ONOREAN.— ERROMA BARRIA.— IZKIRA JAIA.— ESKUSKRIBUZKO LIBURUA.

Ikusmiñsamarra nazalako leku askotan ibilli banaz eta, askaturik neure miñgaiñ zerbait luzia, barritxukeria ganorabagakoan iardun badeutut bere, gogoan daukat, irakurlea, eta zuk bere eukiko dozu geien geinez etorri nazala Erromara San Luis-en eunkida ospatutera, obi aurrean belaunikatu eta erregutzera Eleizagaitik, Leon XIII-garrenagaitik eta neure aparteko premiakgaitik.

Ez naz aztu. Ni San Luis-egaz aztutia, ainbeste zor deutzadazala, izango litzake eskergabetasun neurribagea, eta, beste edozer gauza banaz bere, eskergabea ez nazala uste dot: gauzarik txarrenak bere zati onenbat izaten oi dau. Goizean goitzxo, bakarrik edo lagunuen bategaz, zelan gertetan zan, ioaten izanaz San Iñazio-ren eleizara (*Chiesa del Gesù* uste dot esaten deutzela Erroman). Denpora askoan zai egon da bada bere, iritxi dot San Luis-en gorputzaren gaiñean dagon altaran Meza santua esatea bi bidar [beste bi bidar esan dot neure iaiteguneko Santiaren gorputz gaiñeko altaran]. Eta erregutu dot mezatan, meza-aurrean eta ondorean. Zelan? Zeru goietan bakarrik eranzun leikee zelakua izan zan nire eskari indarbagea, Gertau deikiola Iaunaren iargoi [trono] aurrera eldutea San Luis maitatuaren bitartez.

Ni aztu ezpanaz gitxiago aztu leikezan gure erromeriko gidariak zer erakaitik [causa, motivo] etorri giñan Erromara. Erabagi eben, illaren 20-an, San Iñazio-ren eleizan, eukitea eleiz-iaia. Eta alan, egun onetako goizeko zortziretan, Tortosa-ko Apezpiku iauna asi zan meza santua esaten San Luis-en illobi gaiñean. Errromeri-zale guztiok eta beste Erroman bizi diran espaiñatar asko belaunikatuta gengoan altara aurrean, Zeruariaren [lapislázuli; onetarikori arri urdiñ izartsuagaz dagoz estalduta San Luis-en azurrak] ziar ikusi nairik barruan Luis santuaren gorputza, bere birtuteen likurt gozoak usaintzen bagenduzan legez, auzpez eta erreguka lurrean Zeruetan dontsu ta zorioneko izateagaitik betikotasun amaibagean. Danok geunkan andinai neurribageko bat: San Luis-en antzera zerutar izateko andinaia. Komu-



niñoirako sasoia etorri zanean jira zan gore aldera Apezpiku iauna eta egin eban itzaldi labor bat esaten euskula: ainbeste atsekabe eta eruankizun euki genduzan ezkerro Erromaraiñoko ibillera luzean, gaistoen irribarre burlaskoari beste irribarre errukiorategaz eranzun geuntzan ezkerroan, igaroteko beti indartsu, sendo ta biziro gure fede santuan. Beriala, beste sermoitxu bat egin euskun abade iaun batek komuniñoirako gertagarritzat, eta banan banan, abiau ziran erromeri zale sekular danak Iaun eta Iaungoikoa deboziñoi andiagaz artzen euren bularretan [abadiak ordurako esan genduzan mesak] eta sendoturik zerutarren ianari bedeinkatuagaz urten genduan eleizatik, eskerrak emon da gero.

Artsaldean,barriro San Iñazion, Iauna agirian zala, euki genduan *Trisajio* esaten deuten deboziñoia. Ai! Nik eztakit zer neukan artsalde orretan. Iaungoikoa diadarka bedeinkatuteko premia sartu iatan, erraieetatik ziar etorkidan koruko soiñua, iragita nenguan eta samurtua, arimako arizpirik [fibra] bigunenak aidian neukazan. Zeiñ gozoro ziñuan korutik Balenziatar *tenoreak* [kantatzaille guztiak ziran espiñatarrak]; *Santo, Santo, Santo, Señor Dios de los ejércitos; llenos están los cielos y la tierra de vuestra gloria*: eta, zeñ gogorik! eranzuten genduan guztiok eleiza bete-betean: *Santo, Santo, Santo... etc.* Oiñaze andi bat artu dot amaitu danean, luzaroago nai neban iraun zeiala, ez nintzan aspertuko ni beingoan: gogo geiago einda geratu nintzan, ezta aotik kendu eustela uste neban.

Iarraituan asi zan sermoia. Sermoilaria zan Lorkako Erretoria, bere-titza [texto] *Laudate Dominum in sanctis ejus, laudate eum in firmamento virtutis ejus* [Pslm. 150, 1.]... Baziarduan gogor, su ta gar, erakusten iñoiz baiño geiagobedeinkatu bear genduala Iaungoikoa bere santuetan. Sarritan, ziñoan, gizona gomutetan ezpada bere, zeru urdinak eta lur loratsuak erakusten eutzala bedeinkatu bearra... eta ni, bitartean, sermoilariari ainbeste arreta emon бага, neure belarrietan gelditu iatan soiñuaren durundia kendu eziñik, berez nengoa kantetan ixill-ixilltxo:

*llenos estan los cielos y la tierra
de vuestra gloria.*

Gero igo eban sermoitegira abade iaun batek eta irakurri euskun paper bat, nun ipinten zirean zelako bainandeakaz [condiciones] emoten genduan San Luis-en altarako zillarrezko kandelazai andi eder besoaskodun bat. Gomendau euskun gaiñera ez geiala *biba* diadadarrik egin Aita Santuak, andik egun bira, gure aurrian esango eban Meza-bitartean edo lena-go: gorde geiala atsegin ori azkeneko ikustamenerako.

Onegaz amaitu zan eleiz-iaia, eta urten genduan San Iñaziotik.

Egun onetan ospatuten eben italiatar Aita Santuaren etsaiak *Porta Pia* iregi ebeneko oroipena, urten ebelako mende *uztarrizkotik*. Orregaitik, bada, esan iakun ona izango zala illunabarrerako bakotxa bere ostatuan egotea, ez zedilla gertau errinaikuen narrikatasun zitalak gu tropeliatea... *libertadiaren* izenean. Baiña kalietan zer ebillen ikusteko gogoia neukan, ez neukan iñork ezer egingo eustan ardurarik baketsu ibilli ezkerro, oi dodan legez, eta lagun bati esan neutzan: —Ioango algara *Korso* alderontz? —Goazen, eranzun eustan. Batu neban neure manteoa eskerreko besoan, eta baniñoian lagunagaz, aopean kantetan belarronduan iosita gelditu iatan soiñua; *santo, santo, sant...* ito deustanean estarrrian neure kantua beste musika ospetsu barallidun batek, gure urretik *txin, txin, tan tabaran, tan tabaran, bon, bon* eiuala, diadar, garraxi, ulua luziakaz lagundua. Gaurko festaren agerzaliak izango dira, pentsau genduan. Asi giñan begiraka; antxe urrian zan, beste kalean, ingurukoren baten, baiña ez genduan ezer ikusi.

Askartu genduan pausua *Korson* edo *Via Nazionale*-n zerbait ikusiko gendualakoan, baiña ez egoan esateko gauzarik. Beti legez, gisa eta mueta guztietako ientea ebillen boasti edo paseuan; gudarik egin bagako gudari [militares] batzuek iai andietako iantzirik onenakaz, eiztariak [cazadores] esaten deutenak kapela zabal batetik lepoan bera luma pillo andi bat ebela; emakume gazteak edergarri panparroi askogaz beteta, alogereko manurgaetan, gora ta bera kalean euren buru utsak erakutsi nairik. Plaza batzuetan egozan musika ioten, guztien etxiak [edificios públicos] argituak, naikoa urri-ru, *suertez* bere.

Erromak gau onetan eukan itxurea zan edozeiñ irugarren *klaseko* Urik iaiegunetan daukana. Ez geiago eta ez gitxiago. Gaurko Erroma ezta elduten, zer diñot! ezta urreratu bere zati barrian, nire iritxiz, orain Europako Dierri batzuen buru diran Uri eginbarriko batzuetara, eta uste dot eztaukala bearrik bere. Naikoa dau kristandade guztiaren Erdiyo [centro] eta Nagusi izatea, Aita Santuen uria: asko dau bere barruan eukitea ainbeste gauza eta leku kristautenzako donekarriak, ainbeste oroikarri eta ekida mundu guztian bardiñik ez daukenak ainbeste deseigo [ruinas] kondairar beti ikustamenduak izango diranak mane eta gauzaon zaleakgandik.

Aita Santuak bere olan pentsau bear izan dabe. Oroikarri askotan ikusi ditut murru eukitzailleak eta beste lan batzuk Aita Santuen aginduz egiñak iausi ez daitezen ekida zarrak; baiña oraiñ, Umberto-ren alboko agintariak beste iritzi batekoak izango dira Erroma barritu naian dabil-



tzanean beste edozein erri legez, kentzen deutseela bere iatorrizko izate zarraren zigillua.

Badauke zeregiña Umberto-ren adiskideak erria eta erritarrek barris-tetan. Bada emen, esanak esan, Aita Santua da lenengoa, beragana datoz mundu guztitik, beragaitik bizi dira ienteak, eta bera ezpalitz *au juntzan*. Alegiña egiten dabe Batikanoaren etsaiak Aitasantutarren izen onaren kontra; ori bai: eztago eguneroko paperak irakurtea baiño. Edonun ikus-ten dira eleiz-gizonen kontra eta batez bere Kristordea-ren kontra euren itxura barregarriro kale eskina eta plazetan erakusten daben paperak; ikusi dot, irribarrez, espāñatar erromeri zaleak zelan ziamartu gaituen bere: danok lodi, danok zatar, danok sur luze eta legatz baten antzeko auakaz; (Zeñ polit eta txistetsuak diran gure etsaiak!) irakurri ditut zuri, gorri, baltz, mueta guztietako paperak *Voce della Verità*-tik *Il Diritto*-raño, eta, esan neike zerbait Erroma barriagaitik...! Batez bere *Il Diritto*-k daukan berbeta modua, gure Erromako sarrera ipinten dabenean, irakurgarria da, eta eranzungarria... barregarria ezpalitz.

Illaren 22-ko gauan, *Ballestra*-rena esaten deuten iauregi baten euki dogu izkira-ia bat [*gaztelaniaz fiesta edo velada literaria*]. Iente andia giñan festa onetan eta prestau euskuen lekua estutxua. Alan bada, ate ondolik eta zutiñik nengoala, alderdi guztietatik estutua eta izerditan egosten, erdi entzun nituan itzaldi batzuk eta itzneurtuetan San Luisentzat esaten zituen alabantzak. Deustu-ko ikasle batzuenak onak izan bear izan dabe. Itzaldietatik onenetakoak iruditu iatazan Erromako zaldun batek erderaz irakurri ebana eta azkenean franziskotar praille A. Panaderok egin dabe-na, azkatua, garbia, ondo esana, sutsua. Euskaldun bik alkarregaz egin eben euskeraz berbaldi bat, eta danok kantau dogu *San Iñazioaren martxa*.

Azkenez San Luisen onorean itxi dogu San Iñazioaren eleizan eskus-kribuz geuk, beterikako liburu bat. Nik eskari labur au bakarrik ipiñi dot, euskeraz:

«Luis Santua! Zaindu naizu neure lurreko pausu guztietan eta lagun-da eidazu eriotzako ordu larrian».

Eskari onen azpian, besterik бага, nire lagun batzuek ipiñi ditue euren izenak nireagaz batera.

Bai, lagun gaizala San Luisek, Iaunaren baimenagaz.

AITA SANTUA!

Katoliko batentzat Erromarren gomuteak, Erromaren izenak baka-rrik dakar burura aitatu ez arren, an, laiñu tartean, ondo ondoan, gauza guztien azkena legez, beste izen maite bat, beste gomuta eder bat: Aita Santuarena. Erromako edozer gauzaren gaiñean berba egin danean, naiz da Aita Santuagaz zer ikusirik euki ez, nire irudesleak [*imaginación*] beti ikusi izan dau, erri onetako izate guztiak baiño gorago, odeiak lurraren gaiñean dagozan gisara, izate andi mirarizko maitagarri bat, erdi-lurrekoa erdi-zerutarra, gauza danak bere mendean daukazana Iaungoiko Egillearen izenean.

Niri beti gertau iatana beste danai gertau izango iakoela deitzat. Orregaitik, ziartu nagola uste dot esatean eztagola emen, Espāñako erro-meri zale guztietan, bat bakarrik, Erromara etorteko pentsamentua artu eban unean bertan gogoratu ez ebanik Leon XIII garrenaren irudia, poztu etzanik bereala Kristordea ikusi bear ebalako bere begiakaz; ziartu nagola deitzot esatean pentsamentu onegaz indartu giñala danok ibillera luzerako, eta gure biotzaren erdian ordurik dontsuenentzat daukagula Aita Santua, Pedroren ondorengoa, Zeruetako giltzak bere eskuan dau-kazan Kristordea ikusteko ordu bedeinkatua.

Ezagun dogu danok arpegi ta ibilleretan. Batikano-ko iauregian gagoz erromeri zaleok eta beste espāñatar uri onetan bizi diranak, dauka-guzan iantzirik onenakaz, barruko atsegiña arpegian agiri iakula, paireza-gaz [*con la impaciencia*] urduriturik.

Egun andia guretzat gaurkoa. Zortziretan esango dau Mezea Aita Santuak gure aurrean *Duke sala* [*sala ducal*] edo tarbean, amabietan etartuko gaitu eskumunerako *Sala Klementina* esaten deuten gelaan.

Sartu gaitue Mezea entzun biar dogun lekura, eta zain gagoz geroa-go ta urduriago. Sala onen erdian dakuzguz lerden gordelariak, alabardak besoan dituela; euren agintari bat gora ta bera dabill alderdi guztietara begiraka. Mezatarako gertu ein daben altarea guztiz da polita: seda gorriz-ko dosel bat gaiñean, brontzezko kurutze bat eta sei kandela altaran, etzinkai [*reclinatorio*] bat aurrean eta beste bat ebanjelioko aldean ikusten dira... Oraintxe datoz korura Sixtoren Kapillako kantariak.

Pazienziarik-eza geroago eta geiagora doa gudan. *Emendik ikusiko da obeto, ortik etorriko da, andik urtengo dau*, diñoen nun-nai. —Emen dator!... Lenengo sartzen dira gordelariak, gero zaldun sekular batzuk, gero Obis-po edo Kardenalak (eztakit ziartu zer diran) eta azkenez ikusten da ate



zuloan, santu bat nitxoan legez, irudi gozo bat zuri zuria, megopearra [epiritual] irribarrerik maitagarrienagaz bedekintutun errespetoz beterik belauniko iarri dan iente guztia: Leon XIII-garrena da. Begiak gara guztioak Aita Santuaren mugidarik txikienak ikusteko, mutik ezta entzutun, arnasa otsik bere ez dantzut, arpegi askotatik bera malko gozo ugariak ikusten dira lurreraiaño.

Altara aurrera etorrita erregua egin dau Aita Santuak, ipiñi deutsez Mezatarako iantzi bedekintuak, Meza santua asten da eta koruan Sixto-ren kapilleak musika soinuak ezitsuenak kantetan ditu.

O zer laurka! Betor ona luma iakitun urrezko liraiñ bat eta agertu bei itzik eder ta egokienakaz laurka miragarri au. Belauniko nagon lekutik kana batzuk aurrerago daukat laungoiko Altsuaren Ordeazkoa bera Sakrifiziorik ikaragarriena ospatun; kantua dantzut gozotsua ta garbia, bigun ta leuna batzuetan, sendo ta orroetsua bestetan, baiña beti zoragarri ta ondo neurtua maisu iakitunaren eskuagaz; nire inguruan milla arima samurtuak gozozko negarretan dagoz; zeruko zoriontasunaren apurren bat daukagula emen esan leike...

Amaitu da Mezea eta urten dogu salat. Neure biotza eztot iñoiz samurrago euki, eztakit konortean egon banaz barruan egon nazan arte guztian, eztakit arnasarik artu badot Leon XIII-garrenaren iantzi zuria urten daben atetik barrera sartu dan artean. Artu daidan arnasa orain: atsedan bat emon daiodan neure arimeari.

Amabietako ordua zan izentaua Aita Santuaren ikustamen eta esku-munerako. Asko lenago gagoz zan danok.

Sala Klementina-ra sartzeko agindu deuskuenean, nok gelditu gu? Alperrik zalako atean egozan gordelariak deitzen euskuen *piano, piano*; zarrak eta gazteak egudunak giñala uste zan eta bakoitzari iruditut iakon lekuri onenak artu ditugu aida batean.

Amabi amabietan agertu da eskusilla baten, aidean, len ikusi dogun irudi zuri maitagarria. Goizean eleizari zor geuntzan errespetoak gorde eragin deuskun otsare [entusiasmo] maitasunezkoak urratu ditu bere lokarriak, Aita Santua ikusteagaz batera urten deusku arima arimatik bularretan geunkan indar guztiagaz oso berezko deadarrak: *Biba* Aita Santu erregea! *Biba* Leon XIII-garrena!

Deadar onek iraun dau durunditsua A.S. tronura eldu dan artean. Orduan isildu gaitue nekez, aurreratu da Tortosa-ko Obispo iauna eta irakurri dau itzaldi bat gure izenean, esanaz Aita Santuari zelako espanatarrak giñan gu eta zer dan España oraindik; eranzun deus Obispo edo Kardenal batek [Leon XIII-garrena oso egoan nekatua aurreragoko egunetako prantzaren ikusta-

menakaz, eta orregaitik, osagillearen aginduz, itxi eban berak itzaldia esatea] latin ederrean iazoten ebal espanatarren fedea: gero asi da eskumuna bana banaka.

Barleku luzea da Leon XIII-garrenak gure menekioagaitik [obsequio] beregan artu dabena eta bitartean asi gara euskaldunok San Inazioaren martxea kantetan. Eztakit zer iritxiko iakon kanta au Aita Santuari, baiña bai espanatar euskaldunak eztiran batzuei, bada kantetan gagozala eldu iako nire lagun bati kataluniatar andre bat eta esan deus gaztelaniaz: — *¿Ha visto usted estos franceses?* — *¿Cuáles, señora?* — *Estos que cantan en francés en la recepción española.* — *Pero, señora, si somos bascongados y cantamos en bascuence.* — *Bascuence?... ¡ah!...* Eta alboko bati esan ei deus: *Es que cantan bascuence.*

Bitartean baeuazan belaunikatzen eta eskua mune giten erromeri zaleak, eta ikusten genduan Aita Santuak danentzat eukala itz gozoren batzuk. Noizbaiten eldu iat niri bere Aita Santuagana ioateko txanda. Bai, iarri naz belauniko Aita Santuaren oiñetan, berba egin dot Aita Santuagaz, Aita Santuaren, zeruko giltzak daukazanaren eskua euki dot neure buru gaiñean, Aita Santuaren esku leun, otz ta azursua euki dot neure esku artean, neure eskua estutu dau Aita Santuak! O nire bizitzako unerik duntsuena, etzaitut aztuko!

Gutziz zoriondua urten dot Batikanotik ia ordu bi ta erdietan esaten eztakit zeinbat garrenean: *Biba* Aita Santu erregea!



BESUBIOA, POMPEIA, NAPOLES

Amaitu ditugu Erroman geunkazan zeregiñik nagusienak. Erregutu dogu San Luisen illoi aurrean, ikusi dogu Aita Santua: gauza bi, guretzat zorion andi bi izan diranak.

Orain jira aidako bat egin bear dot Napoles aldera. Nire borondatea egin al baneike beste leku askotara ioango nitzateke, baiña eztago danetarako denporarik. Ostatuko lagunetatik ezin izan dot irabazi bat baiño besterik *biaje* onetarako: beste lagun on bi batu iakuz gero. Laurok gagoz burribidearen gelditokiko sala baten: españatarrik ezta geiago. Gabeko amaiak dira, otz egiten dau; or da emen, txoko guztietan, gizon langilleak eta baita emakume batzuk bere lo dagoz neurdiñ zorro zarren gaiñean, edo pardelen batzuk burkotzat arturik; biajari geienak traskillak, malmutzak eta motxaille itxurakoak deritzataz, neure logureak argiak diran baiño illunagoak dirala idoro eragiten deust...

Billendeak artzen gagozala esan deusatz lagun bati: —*Gu bakarrik izango gara españatarretatik*. Eta —*Ez*, eranzun dau alboan gizon batek Kataluniako semeen mintzoeran, *emen gara beste batzuk*. Alan zan egiaz, etxadi osoagaz egoan erantzun eban gizona, danok poztu gara olango lekuetan oi dan gizan eta sartu gara alkarregaz manurga batean. Berbeta aldi bat egin dogu deadarka, bata bestea ondo aitu eziñik, *trenaren* zarateak estaltzen ebalako gure esana, baiña nekatuak gagoz eta lotarako asmoetan asi gara.

Begiak eregi ditut gerotxuago, egoera on bat ezin billatuta. Manurga onetako argi motelak erakusten dau laurka polit bat: nor dago goruntz begira, aoa zabalik, azkenengo zigarroaren mutur edo *punta* esku adorebagean daukala: nor buru ta beso ondo estaldurik, korkoitz baten irudian txokorrian okertuta: nor, iarri-lekuaren erdian, bere burua gora ta bera, aurrera ta atzera darakillela, norbaitegaz daukan izketan *baitezka baitezka* balego legez: nortzuk bata bestearen gaiñean buruak okerkeran ipiñita zerbaiti bultzaka dagozala uste da... Baiña lo egin daidan al badot, bada loaren bearra daukat.

Goizeko lenengo orduetatik entzun dot erdi lotan *biolin* soiñua. Pentzau dot biajari goiztar *umore* onekoren bat dala. Geroago eta urrerago entzuten neban zoiñua baiña ez dot iaramonik egiñ zoiñularia gure manurgan sartu dan artean. Esnatu gaitu oso guztiok, io ditu eta kantau ditu *napolitana* tristetzu batzuk, barre pixkat eragiñaz... eta barria kendu

deusku azkenean txapela erantzita ipiñi deuskunean aurrean ezkerako plartertsu bat. Biolindunak urten dabenean sartu iaku ostera beste bat eta beste onenbeste egin dau. Emengo oiturea izan bear dau manurgarik manurga zoiñua io ta eskean ibiltea. Ezta txarto: nor bere etxetik Napoleseraioño, edo nai dan lekura arte ioan ta bidean batu *biajerako* edo geitxuago zoiñua ioaz: ezta txarto. Goizeko zortziretan eldu gara Napolesera. Geldilekuan billatu ditugu españatar bi geiago, gu ekarri gaituan treneko basterren baten etorri diranak. Balladolid-ko ikasle gazte bi dira. Alkarregaz iolas pixkat egin da bereala erabagi dogu Napoles-en oraiñ sartu бага iarraitutea Pompeiaraiño eta andik igotea lenengo Besubiora sei adiskideok. (Kataluniatarrik emen gelditzen dira).

Alan bada, *minutu* batzuk geroago urtetan daben tren baten sartu gara seiok, ta bagoaz. Agertzen da eskerretara, entzute andiko baia, zabal, urdiña, ontziz betea; agertzen dira millaka etxeak, aizetik daukezan mendiak bultzaka bultzaka itsas ertzeraioño ekarri eta an batu balitu legez ustai erdi baten itxuran; agertzen da aurrean Besubio mendia, erraietan gordeten daben ekirtza edo *fabrikaren* bateko kee baltza tontorretik goruntz erakusten dabela. Urdiñ ederra dauka zeruak, argi indartsua eguzkiak, arpegi alaia daukagu *trenean* goiazan guztiok...

Baiña itxi daigun Napoles geroko. Ia eldu gara Pompeiako deseigoetara [*ruinas*]... Bertan gagoz.

Pompeian iatzi gareanean urten dauskue bidera mutiltxu batzuk paper banagaz, bakoitzak ostatu baten barri emoten. Iru edo lau etxe barri ikusten dira biariarentzat egiñak, eta beste gauzarik ezta agiri. Sartu gara lenengo billatu degunean, eta zerbait iaten dogun bitartean agindu deutzagu iabiari gertau daizala iru zaldi Besubiora igo daigun iru lagunek, bada beste irurak Pompeian gelditzen dira, mendian gora igoteko kemen бага. Gosalduta beingoan iarri gara zaldi gaiñean bi ikasleak, ni eta gidaria, ta beste mutill koskor bat atzetik saltaka dogula, zigor bategaz zaldiak erabilteko, urten dogu mendiruntz. Lenengo bidalde zabala beingoan igaro dogu, gero sartu gara bide estuaguetatik gorantz, mendi barrenean dagozan erritxuetatik ziar. Ezin leiteke sinistu barren onetako lurraren narotasuna. Biziro ta indartsu iasoten dira arbola mueta asko alortez bete beteak; batez bere mastiak ikusgarriak dagoz, gizonen buruak baiño mats mordo andiagoak dakustaz, ale bakoitza gaztaiñ ale bat aiñakoa badauke. Mats onegaz egiten ei da *Lachrima Christi* esaten deuszen edaria.

Atzera gelditzen dira or beian etxiak, arbolak, mastiak... geroago ta urriagoak [*escaso*] dira landara berdiak, lurra autz baltzaren *kolorea* dauka, aldatzean gora geure zaldi zar azurtsuak ezin eroanik nekatu gara, beroak



erre bear gaitu. Atsedean bat egin dogu oraindik bidean billatu dogun etxetxu batean, edan dabe gidariak eta mutill koskorrak *botella* bat Besubioko ardao *alla nostra salute*, igo dogu zelanbait ondar baltzian gora Besubioko suak artutako arri pilla itxura gaiztokoen artetik, eta eldu gara azkeanean izerdi bitzetan *Stazione* esaten deutsen tokira. Emen iatzi gara zaldietatik, bada aiñ dago pika emendik gallurrera eze auntzak bere ezin leikee igo. Oiñez bada bere igongo dogu. Laguntza barik, makilla *puntadun* banagaz, soindoiña [*soтана*] gerrian sorkituta, aupa mutilak! goora onezkerro arnasa dagoan artean... Or iarri, emen etziñ, arnasarik ezin artuta, izerdi ta [...] *garbantzo* alia aiñakoakaz, eguzkirik beroenaren azpian, lur goriarren gaiñean, *txirrist* eta *larrapast*... gallurrean gagoz. Asko aurretatu gara zulo aldera, entzuten da barruko murmurada bildurgarri bat, oiñak ipinten ditugun tokian keiak urtetan dau, arpegira iatorkuz *azufre* usain gogor andi bategaz aidean dabilbazen ondar baltz edo auts apurrak. Goazen aurrerago...

Puaa!! Peril onetik iges egin dogu. Aize bolada batek keetan estaldu gaitu, ta une batean, ia siñiztu dot nik beintzat ito bearra. Goazen inpernu zulo onetatik urrutira. Dana da keia, dana da baltza, dana berotasuna, dana da itzala; gauza alai bat ezta agiri: bakarrik emoten deust barreguria lagunen arpegia ikusteak; afrikatarrak dirudie: olan egongo naz neu bere. Goazen beruntz.

Iatsi gara *stazionera* aida batean, erdi bilinbolaka, oiñetakoetan libra biña ondar ta arrikoskor ditugula, artu ditugu zaldiak, eta Pompeian gagoz ia iruretan ziabeste oneek ipinten.

Gorputzak garbitu doguzanean ioan gara Pompeiako deseigo edo *errestoak* ikusteta. Sartzen da *Porta-Marina* deritzaion atetik... pausu batzuk aurrerago ikusten da eskerretara musaga txiki bat, erri onen gaiñean egoan auts edo lurra kentzean billatu diran gauzakaz: etxeetako tresnak, ontziak, ogi ikatz biurtuak, garia, alortak, gizon ta emakumeen gorputzak auts egiñik, baiña euren itxura guztia ondo gordeten dabeela; emakumien urrezko apainduriak, mallatu ta baltzituak batzuk, garbiak eta egin ziran moduan beste batzuk... Barruzko *tristetasuna* sartzen dabe gauza oneek. Kale onetan gora igo da billatzen dira beste kaleen ariak, denpora atako burdi edo manurgak egin zituen utsuneak ondo ezagun dirala kaleetako arri latzean. Teillaturik eztauke etxeak, marmolezkoak dira asko, atariak arri koskorraz egindako ziamarrak daukez, barruan ikusten dira Iaungoiko guzurrezkoen talluak eta pintura zikin asko.— Lenago ainbeste baralli egoan erri onetan isiltasuna bakarrik dago. Iñor ezta agiri uri guztian ingeles biajari bi baiño besterik... *Quomodo sedet sola civitas plena popula*

[*Lament. de Jerem. Cap. I. v. 1.*]... A! Zelan dagoan bakar ta tristea lenago iente alaiz beteta egoan uri au. Emen dagoz Iaungoiko guzurrezkoen altarak, emen dagoz iostaketarako lekuak, emen dagoz kaleak isiltasun negarrian, emen dagoz pekatu naskagarrietako etxeak, baiña iendeak, nun dira?... *Gelditu ziran kanpoan etzinda gaztea eta zarra... il zenduzan* (Jauna) zure aserrekogunean: eritu zenduzan eta etzenduan euki errukirik [*Id. Cap. II. v. 21.*] O Pompeia! Zure Igarlak ikusi zituen zureztat gauza guzurrezko eta burbulloak [*necias*] eta ez eutsuezan agertu zure gaiztakeriak penitentziara biurtu zañaitezan [*Id. Cap. II. v. 14.*]...

Iaungoikoaren zigorra ikusten da emen. Lenago Pentapolis-ko uriak ondatu ziran antzera (esan giñaike bildur бага) amaitu zan Pompeia bere dongatasunagaitik. Dударik eztaukat ikusi dodana ikusi ezker.

Ilunabarra da. Eguzkiaren azkenengo erraiñu erdi illak biraltzen dabe lurrera bere amaierako argi apur misteriozkoa... Uri errukarri onen gordelariak gogoratzen deuskue atek itxiteko sasoi dala ta arimea eziñ esandako damorritz beteta dogula, bagoaz Napolesera eroango gaituan trenera. Zerk dakarkigu gure arpegietan agiri dan tristetasun au?

Ilunabarrak... toki onek... gure arima nekatuak?

Lo gozo baten bidez indarturik iagi nas Napoles-en. Iaungoikoak laguntzen deusku. Gaur da San Jenaroren odol legorra urtuten dan egunetatik bat. Oetik iagi ta laster ioan gara katedralera mirari au ikusteko asmoan, eta ikusi dogu bai, geure begiakaz ikusi dogu miraria! Eleizan sartu garanian entzun ditugu deadar, txilio edo garraxi batzuk, erdi erre-gu, erdi negarrak: ioan gara zarata bakanti [*particular*] au entzuten zan tokira, epistola aldeko kapilla batera, eta ara zer egoan: altara nausian Obispo iaun bat eskuetan kristalezko ontzitxu bategaz eta abade batzuk alboetan; kapilla dana erriko ientez bete bete esan dodan erre-gu muetan. (Gero esan deuskue miraria egiteko erregutzen ebeela). Igarri deuskuenean arrotzak garana eroan gaitue, maitero, gordelari batzuk, altariaren eskillera malletaraiño, an iarri gara belauniko beste kanpotar batzuekaz batean... eta laster, geuk ikusi dogu odol legorra zelan busti dan! Orduan asi da ientea negarrez eta kantetan *Te Deum laudamus*, eta Obispoak, aurreraturik gugana, jirabiratu dau ontzitxua, odol urtua obeto ikusi daigun argi egin dau abade batek, mun egin deusagu santuaren odolari errespetorik andienagaz, eta atzeratu gara beste ienteak ikusi ta mun egin eian.

Bedeinkatua izan dedilla gure Iaungoikoa, bada ikusi eragin deust mirari bat, bere Eleiza Santaren iaungoikotasunezko *señale* santu bat.

Mirari au ikusi ezker begiratu bat egin deusagu katedralari. Eleiz oso ederra da, aberastasun andiak daukaz, geienak San Jenaro-ren kapi-



llan bertan: Dominikino eta Ribera-ren pinturak, sidarrezko altarak... eta beste gauza geigo. Katedral onen aurralde guztia, kanpoko aldetik, barriztetan dagoz, eta *aldamioaren* erdian, ol andi baten dago eskribiduta: *Il restauro de la facciata del Duomo e opera de la carita cittadina*. Esagun da emen bere erriak lagunduko ezpaleu zer izango litzatekian eleizakaz.

Astirik eztoigu izango Birjilio-ren illoi lekua ikusteko eta ezta Españaiko errege ziranen iauregia bere, baiña nai neuke ikustau Borbon-tarren Musaga, gaur *Museo Nazionale* deritzaiona. Ara guaz...

Napolesen nai litzateke bizi iru bat astein, eta egunero ikusi musaga au, zelanbait iakiteko zer dagoan etxe andi onen barruan. Pintura antxinakoak, tallu maisuenak; Pompeiako auts tartetik ekarritako etxe-ontzi, tresna, gorputz, azur, ule, paper erretako ondo konponduak; emakumeen belarri, beso ta paparreko edergarriak, nik dakit zer ez? Burua bero ta nas-tua atera dot eta baita nire lagunak bere, diñoenez. Iru bat astein ikusi ezkerro dinodan gixan... Iaunak, ez ete nas etorriko astiroago Italira?

Musagatik urten da, kale batean bilatzen dogu iente pilla andi bat zerbait inguratuten dabela. Zer ete dago?... Urreratu nas, begiratu dot, eta, zer uste dozue erdian egoala? *Bombo* zar bat, *kornetin* mallatu bat eta bronzesko plater batzuk ioten iru gizon. Zer soiñua, Italiarako, Napoleserako! Eta alan bere ientea begira! Egia izango da *orratik* erria erri dala mundu guztian.

Beste kale bat ikusi dot alderdi bateko etxeetatik bestekoetara milla paper ori gorri ondo birtebakikoz [*recortados*] apaindua luzera guztian. Kale atako iaia zan eta birteratu [*recorrer*] dot alde batetik bestera gauza barriren bat billatu naian, baiña ez dot gauza esangarririk arkitu: kalearen luzeerako ertz bietan gauza zaltzailleak, batez bere lorak eta alort edo frutak madari ta matsetatik asi ta gastaña errietaraiño; beste kaleetako gaztetegi alaia ugaritsuago, beerri ientea, begi askar baltz ederretakoa, zerbait gure Andaluziako-en irudikoa. Eztago soñorik eta dantzarik. Zer mingarria emengo dantza mueta bat ikusi eziña!

Eragin deusagu manurgariari kale onenetatik kai aldera jira bat. O gauza ederra! Ikusi dodanik zerurik urdiñenaren azpian itxaso anai, geldi ta leuna isill ta umilla dago begiak iritxi leikean aurralde guztian; kaian zirkiñik bage dakustaz eun ontzi Iaungoikoak badaki nundik norakoak; leorrian millaka burdiak eta askozaz geiago gizonak ontzien bete-utzituan zereginduta; katien *arradak*, burdien *trinki-trankak*, gizonen oiua, latigo-en blastadak; an, or ta emen milla ots, zarata, baralli ta deadar gortugarriak. Laurka dontsu au ikustera poz pozik batu balira legez, zenbat etxe, iauregi nagusi ta aberats itxurakoetatik asi ta pobreenetara itxas aurre one-

tan inguratuak. Eta, an dago keinatzaillea [*amenazador*], Besubioko mendi tontorrean, emengo gauza guztiai begira, keezko arbola illun madarika-tua...

Baiña, zeñ gogoratzen da emen Besubio-aren keinakaz? Zeru eder onen azpian, burdi mandoak eurak lorez apainduta dagozan toki onetan, arnasa artzean bertan sartzen bada alaitasuna; zolitasun, ibillaskar ta txoro deadar artean nai ta nai ez ukerituk [*contagiar*] geldituko balitzateke edozeñ? Ara, neu bere odolberritua nagoala deitzat, mugidalde askarraguetakoa... Atzotik gaurko egunera, zer bitartea!



BAIÑA BIOTZAK DIO ZOAZ EUSKAL-ERRIRA

Gomutagarria da Erroma, goitandiak bere eleizak, ikusgarriak bere musagak: alaia da Napoles, biziak bere ienteak eta urdiña ta zabala bere baia; ikusgarria da Besubioa, gogoangarriak Pompeiako kale bakarrak; ederrak dira Italiako lur, soro, masti ta zelai aurtiak; mendiak, arkaitzak eta zerua; baiña biotzaren erdian utzune andi bat daukat, gogo ta esperantza bat bistuten iat: Italia ezta Euskal-errira ta Italiak bere ondasun, ikusgarri eder eta lurreko iantzi aberats zoragarri onakaz ezin leike bete euskaldun baten biotza. An, urrutian, Españako ipar aldean dago gure errira, mendi berdeen artean etxe zuriak gordeten dituana. Erri atako ienteak, euskaldunak ikusteko ta eurai emen ikusi ditudan gauzak esateko gogoia daukat; erri arek bateko dau nire biotza, bada, aiñ ditut maite lur atan gelditu ziran

soro, zelai,
baso, txara
ibai ta errekatxoak!

Etorri nas, irakurle ipentzaua, ta esan dautsudaz ondo edo txarto nire mugidalda ta pensamentuak; sinisten dot, asieran esan neban gisan, euskaldunik etzala itsutuko ziabeste onek irakurten, baiña, alan bere, zeñek kenduko deust biotzetik Euskal-erriagaitik daukadan maitetasuna?

Amaitzera noa ipuin bategaz. Bilboko Barrenkalian bizi ei zan atso batek maite eban mutil gazte eder bat. Esaguturik mutillak atsuaren maitetasuna, esan ei eutsan:

—Zergaitik maitatzen nausu, nik begiratu bere ezin badeutsut?

Eta atsuak:

—Badakit, badakit, eranzun eieban; baiña zeñek kenduko deust biotzetik nire maitasuna, zuk maitatu ez arren nik maitatzen bazaitut?

Atsuak ziñoana diñotzat nik bere Euskal-erriari.

AGIRRE-KO DOMINGO-K
Zumaya, 1892